ALTZAKO ERREFUXIATUAK:

EUSEBIO

Mª LUISA

SANTI

"HERRI BAT GARA ETA HERRI BATEN ESKUBIDE GUZTIAK DITUGU. BERAZ, GUK DUGU ARRAZOIA ETA HORREGATIK IRABAZTERA KONDENATUTA GAUDE"

(Txomin Iturbe Abasolo)

ERREFUXIATUAK EUSKADIN

amnistia askatasuna



# ALTZAKO AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEA

A L T Z A K O   P R E S O A K :



ernando Arburua Iparragirre



Imanol Ostolaza Alcocer

Centro Penitenciario de cumplimiento cerrado
Herrera de la Mancha
Módulo 1
apartado 77
Manzanares (Ciudad Real)
MADRID



Koldo de Mercos Olaizola

Centro Penitenciario Alcalá Meco
Módulo 4
Alcalá de Henares
MADRID

Kaixo lagunak!. Gogor eta moral haundiaz egon zaitezten espero dugu.

Gartzeletako gaurko egoera aztertu eta baloratu ondoren honako gure eritziak adierazi nahi genizkizueke. Lehengo eta behin, sakabanatze-neurria, eta ofentsibaren azkartzea plangintza orokor bati dagozkiola. Izan ere, etsaiak urrats bat agortzen duenean, edo hobeki esan, neutralizatu eta pikutara botatzen diogun bakoitzean, urrats berriak/ ematen ditu, eta hauei ere arrapostu egokia eman behar diegu, horretarako, ordea, ongi neurtu behar dugu arazoaren zenbait arlo, hala nola: mementu politikoa, burruka honen edukia, metodoak eta helburuak, gartzelaren barnean agertu ohi diren dinamika desberdinak, presondegi diferenten arteko koordinakuntza, eta Euskal Herrian ematen diren herri-mugilizapenekiko lotura, etab.

Susma dezakegunez, maila errepresibo garrantzitsuak igaitera / prestatzen da etsaia hurrengo hiru urteetan zehar, ezen epe honetako/ hauteskunde ezak, eta NAEMa makurterazi eta asimilatzeko oraindainoko entsegu oro antzu izateak, horrelaxe seinalatzen bide bait dute.

Beraz, prozesuaren aurreramenduaren ondorioz jasan beharko ditugun erasoen kontu harturik, gure indarrak ongi neurtu behar ditugu, eta alferrik ez erretzearen erizpideari lehentasuna eman behar diogu.

Herri-mugilizapen eta testuinguru politikoari buruz, berriz, / zera esan, gertakarien ugaritasunak, eta honek ezartzen digun erritmoaren bizkortasunan eragin du makoen burruka, gainerako burruken artean, lainotu xamar gertatu dela.

Frantses interes ekonomikoen kontrako boikotezko kanpaina, hauteskunde espainar eta vascongadoak, J.C. Ioldiren afera, Aberri Eguna, Gernikako 50 urtehurrena, udal, diputazio, nafar "parlamentu foral amejoratu"rako, eta europar hauteskundeak, jaiak bai borroka ere bai, eta abar, direla eta zuen ekintzek ez dute hartu behar bezelako oihartzuna, eta difuminaturik geratu dira.

Eta askenik, agur gisa, bakarrik esan zuen erresistentzia eta moral haustezina eredua dela Euskal Populu osoarentzat, eta beti bezain indartsu eta burrukalari segitzeko. Agur eta laster arte.

Aurrera bolie! Jo eta Ke irabazi arte!
Gora Euskadi Askatuta!. Gora Euskadi Sozialista!

E.H.an 87.5.I